

Bidaiarien sarrerak % 14 gehitu dira 2004ko urtarrilean

Gaualdiak, berriz, % 13 ugaritu ziren, 2003ko urtarrilaren aldean.

2004ko urtarrilean, 94.206 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino ia 12.000 sarrera gehiago, hau da, % 14ko gehikuntza, Eustatek eskainitako datuen arabera. Hiru lurralde historikoetan nabarmen gehitu dira bidaiarien sarrerak: urte arteko hazkunde-tasarik handiena Araban izan da (% 21); tarteko tokia du Bizkaia (% 17); eta hirugarren dugu Gipuzkoa (% 9).

Estatutik datozen bidaiarien sarrerak % 14 igo dira; eta puntu bat gehiago, % 15, atzerriko bidaiarien kopurua. Estatutik datozen bidaiarien kopurua igo egin da Araban (% 24), Bizkaian (% 12) eta Gipuzkoan (% 12). Atzerritarrek ez dute bilakaera bera izan hiru lurraldeetan: indarrez hazi dira Bizkaian (% 33), neurritsuago Araban (% 8), eta urritu egin dira Gipuzkoan (% -1).

Estatutik datozen bidaiarien artean, ugaritu egin dira autonomia-erkidego gehienetatik datozenak, eta nabarmen gehitu dira Kataluniatik, Andaluziatik, Asturiastik, Galiziatik eta Nafarroatik etorriak. Atzerriko bidaiarien artean, igo egin dira Alemaniatik, Italiatik, Erresuma Batutik, AEB-Kanadetatik eta Portugaldik etorriak, eta ia bere horretan mantendu dira Frantziatikoak.

Gaualdiak, 2004ko urtarrilean, 165.231 izan dira, aurreko urteko urtarrilean baino % 13 gehiago, hots, ia 20.000 gaualdi gehiago. Urte arteko bilakaera positiboa izan dute gaualdiak hiru lurralde historikoetan ere. Hazkunde handia izan dute Araban (% 33) eta neurritsuagoak Bizkaian (% 12) eta Gipuzkoan (% 7).

Bidaiarien batez besteko egonaldia, iazko urtarrileko 1,77 egunetatik aurtengo urtarrileko 1,75 egunetara laburtu da, Euskal AE osorako. Laburtze hori Bizkaian (% -4) eta Gipuzkoan (% -2) izandako jaitsierek eragin dute, Araban nabarmen hobetu baita egoera (% 10).

Plazen betetze-mailak % 7 egin du gora: iazko urtarrilean % 28,79 zen; eta joan berri den urtarrilean, aldiz, % 30,68. Nabarmen hobetu da indizea Araban (% 34), askoz neurritsuago Gipuzkoan (% 4) eta bere horretan dirau Bizkaian (% 0).

Nekazalturismoa: gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (% 18) eta gaualdiak (% 35)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 3.728 bidaiari-sarrera zenbatu dira joan den urtarrilean, aurreko urteko hil berean baino % 18 gehiago: % 45 ugaritu dira Araban eta % 57 Gipuzkoan, eta Bizkaian, ostera, % 22 urritu. Estatutik datozen bisitariak % 17 gehitu dira Euskal AEn: Araban % 38, Gipuzkoan % 59 eta Bizkaian

% -24. Atzeritikoak % 47 ugaritu dira Euskal AE osoan, eta bilakaera positiboa izan dute hiru lurralde historikoetan ere.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gualdiak 8.915 izan dira urtarrian, aurreko urteko hil berean baino % 35 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasa oso positiboak izan dira Araban (% 90) eta Gipuzkoan (% 66); Bizkaian, ordea, negatiboa izan da (% -7).

Bidaia-rikiko batez besteko egonaldia hamalau ehuneko-puntu luzatu da Euskal AE osoan, 2003ko urtarriaren aldean: duela urtebete 2,10 egunekoa zen; eta, azken urtarri honetan, 2,39koa. Bilakaera positibo hori erkidegoko hiru lurraldeetan gertatu da.

Plazen betetze-maila, azkenik, asko igo da, % 20, Araban (% 57) eta Gipuzkoan (% 47) izandako gorakadaren ondorioz, nahiz eta Bizkaian (% -15) bilakaera negatiboa izan.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 017 506. Faxa: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE						ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
	01/2004	%	01/2003	%	Δ%	01/2004	%	01/2003	%	Δ%	01/2004	%	01/2003	%	Δ%	01/2004	%	01/2003	%	Δ%				
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																								
GAUALDIAK	165.231	100	145.935	100	13	29.501	100	22.229	100	33	76.032	100	67.676	100	12	59.698	100	56.030	100	7				
Estatukoak	123.974	75	109.588	75	13	24.350	83	18.305	82	33	53.187	70	49.563	73	7	46.437	78	41.720	74	11				
Atzerrikoak	41.257	25	36.347	25	14	5.151	17	3.924	18	31	22.845	30	18.113	27	26	13.261	22	14.310	26	-7				
Hiriburua	108.057	65	95.267	65	13	23.951	81	16.444	74	46	52.240	69	45.076	67	16	31.866	53	33.747	60	-6				
Kostaldea	14.748	9	10.350	7	42	-	-	-	-	-	6.524	9	5.984	9	9	8.224	14	4.366	8	88				
Barnealdea	42.426	26	40.318	28	5	5.550	19	5.785	26	-4	17.268	23	16.616	25	4	19.608	33	17.917	32	9				
BIDAIARIEN SARRERAK	94.206	100	82.503	100	14	16.683	100	13.820	100	21	41.752	100	35.739	100	17	35.771	100	32.944	100	9				
Estatukoak	72.751	77	63.769	77	14	13.849	83	11.188	81	24	31.275	75	27.856	78	12	27.627	77	24.725	75	12				
Atzerrikoak	21.455	23	18.734	23	15	2.834	17	2.632	19	8	10.477	25	7.883	22	33	8.144	23	8.219	25	-1				
Hiriburua	61.299	65	53.938	65	14	12.477	75	9.425	68	32	29.353	70	24.643	69	19	19.469	54	19.870	60	-2				
Kostaldea	8.106	9	5.697	7	42	-	-	-	-	-	3.207	8	3.230	9	-1	4.899	14	2.467	7	99				
Barnealdea	24.801	26	22.868	28	8	4.206	25	4.395	32	-4	9.192	22	7.866	22	17	11.403	32	10.607	32	8				
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,75		1,77		-1	1,77		1,61		10	1,82		1,89		-4	1,67		1,70		-2				
BETETZE-MAILA PLAZAKA	30,68		28,79		7	32,12		24,00		34	31,28		31,35		0	29,32		28,25		4				
Hiriburua	32,83		29,43		12	35,57		24,23		47	33,35		31,06		7	30,30		30,48		-1				
Kostaldea	26,80		29,86		-10	-		-		-	22,78		34,35		-34	31,17		25,33		23				
Barnealdea	27,49		27,15		1	22,63		23,36		-3	29,87		31,14		-4	27,23		25,45		7				
BETETZE-MAILA GELAKA	39,60		40,43		-2	42,76		36,78		16	40,76		44,24		-8	36,66		38,01		-4				
Hiriburua	41,88		41,91		0	48,29		39,97		21	42,72		45,62		-6	36,22		38,15		-5				
Kostaldea	34,40		41,80		-18	-		-		-	30,11		46,51		-35	38,48		37,41		3				
Barnealdea	36,13		36,56		-1	25,62		25,69		0	39,85		39,39		1	36,62		37,94		-3				
NEKAZALTURISMOA																								
GAUALDIAK	8.915	100	6.606	100	35	1.514	100	797	100	90	2.818	100	3.046	100	-7	4.583	100	2.763	100	66				
Estatukoak	7.976	89	5.914	90	35	1.302	86	761	95	71	2.345	83	2.903	95	-19	4.329	94	2.250	81	92				
Atzerrikoak	939	11	692	10	36	212	14	36	5	489	473	17	143	5	231	254	6	513	19	-50				
BIDAIARIEN SARRERAK	3.728	100	3.153	100	18	703	100	486	100	45	1.156	100	1.475	100	-22	1.869	100	1.192	100	57				
Estatukoak	3.469	93	2.977	94	17	659	94	478	98	38	1.070	93	1.404	95	-24	1.740	93	1.095	92	59				
Atzerrikoak	259	7	176	6	47	44	6	8	2	450	86	7	71	5	21	129	7	97	8	33				
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,39		2,10		14	2,15		1,64		31	2,44		2,07		18	2,45		2,32		6				
BETETZE-MAILA PLAZAKA	12,43		10,39		20	10,39		6,61		57	12,50		14,64		-15	13,24		9,00		47				
BETETZE-MAILA GELAKA	14,11		11,88		19	10,63		7,92		34	14,41		16,93		-15	15,29		10,10		51				

Iturria: EUSTAT